


# «Gure bizitzan zehar eraikitzen dugun iruditeriak ingurukoa ulertu eta sentitzeko moduan eragiten du»

## Ana Aldama Virtorekin solasean



Arte Ederretan lizentziatua da Ana Aldama Virto (Bilbo, 1987), eta aurretiaz Arkitektura ikasketetatik 3 urtez igarota. Hirien susmo eta arrastoak haren lanean dirau, eta artearen bitartez gure inguruari bestelako begiradez hurbiltzera gonbidatzen gaitu. Haren *The invisible city* bildumako collage bat ekarri dugu azalera, eta solasean aritu gara fikzioaz, hiriez eta arteaz.

**Aldiri:** Fikzio hirien ingurukoak barnebildu ditugu 39. zenbaki honetan, errealitatean eraiki eta ukitu ezin diren, baina gure iruditegia osatzen duten hirietan murgildu gara. Zeintzuk dira zure fikzio hiriak? Zeintzuk aipatuko zenituzke eta zergatik?

**Ana:** Haurtzarotik liburuak, filmak, fantasiak eta zientzia-fikzioak nire bizitzaren parte garrantzitsua izan dira. Baserri batean hazi nintzen eta nire jolasik gogokoena nire lagunik onenarekin mozorratzea zen, irudimenezko lekuetan istorioak asmatzen genituen biok. *Alicia en el país de las maravillas*, *En el laberinto*, *El mago de Oz* edo *La historia intemible gure imaginarioaren habia* puntua ziren, gure irudimena pizten zuten txinpartak. Gero zientzia-fikzioa ezagutu nuen. Aldous Huxley, Phillip K. Dick, J.G. Ballard... eta *Blade Runner* edo *Alphville* pelikulek nire imaginarioa zabaldu zuten errealitatearen, munduaren eta hiriaren inguruan nuen pertzeptzio eta ikuspegia eraldatuz. Modu batean edo bestean honek guztiak nire lanean eragina du, eta “*The invisible city*” seriean bereziki nabaria da.

**AAA:** Izan ere, azaleko irudia “*The invisible city*” bildumaren parte da. Azalduko diguzu seriearen jatorria?

**A:** Serie hau unibertsitatean hasi nuen, serigrafiarekin lehendabizikoz lan egiten jarri nintzanean. Collage teknikaren

bidez eraikin desberdinak lotzen hasi nintzen. Gero seinaleak, marrazkiak, letrak eta anatomia piezak gehitu nituen. Arkitektura beti nire imaginarioaren parte garrantzitsua izan da eta teknika honekin nire buruan zeuden hiriak grafikoki erakutsi nahi nituen.

**AAA:** Egia da sarri, zure lanean, hiri-inguruak, espazio etxeokiak eta etxebizitzak antzeman ditzakegula hainbat modutara irudikatuta. Zer dela eta arkitekturaren presentzia nabari hori?

**A:** Arkitektura nire irudimenaren eta nire bizitzaren parte izan da beti. Arte ederrak ikasi aurretik hiru urte eman nituen arkitektura karreran, eta hura abandonatu arren, eraikinak, hiriak, espazioak eta haietan nola bizi garen, nire lanean eta bizitzan presente egon dira beti.

**AAA:** Fikzio hirietara itzuliz, zure ustez, letra eta irudietan eraikitako hiriek badute eraginik espazioari begiratzeko dugun moduan, gure espazioaren ulerkeran?

**A:** Gaur egun espazioak eta tokiak hautemateko dudak modua, nire haurtzaroaren parte izandako fantasiazko hiri zein leku horietan du eratorria. Hala nola, bisitatu izan ditudan hiriak eta bizilekuak. Gure bizitzan zehar eraikitzen joaten garen iruditeria, inguratzen gaituena nola ulertu eta sentitzen dugun eragiten du. Gutako bakoitzak dituen sentsazio eta oroitzapenak espazioa eta hiri sentitzeko modu desberdina garatzea egiten du, horrek beti liluratu egin nauelarik. Horregatik maite dut artea, obra bat, hiri edo espazio baten antzera, behatzen duen pertsonaren arabera aldatu egiten delako.

**AAA:** Begiratzeko modua ere oso presente dago sortzen dituzun buztinezko pertsona txiki-txiki horietan. Eguneroko objektuen alboan jarrita errealitate berriak sortzeko gaitasuna dute, ingurune intimo eta propioak.

**A:** Betidanik gustatu izan zait teknika desberdinekin esperimentatzea, haiekin jolastea mundu eta pertsonaia txikiak sortzeko. Arteak begiratzaren irakasten dizu, hori da gehien gustatzen zaidana. Dena beste modu batera begiratu daiteke, egunerokotasunean inguratzen gaituzten gauza txikiak ere. Nire terrazako landare hostoetan ezkutatutako pertsonaia txiki horiek edo gosari kopa batean eseritakoek, eguneroko bizimodua gauza berezi batean bihurtu dezakete.

**AAA:** Fanzine La Tourette ere sortu zenuen Diego Grisaleñarekin batera. Parte-hartzeari irekitako proiektua zen, zenbaki bakoitzean gai bat proposatzen zenuten eta gai horren inguruko ikuspegi kolektibo bat osatzen zenutela esan daiteke.

**A:** Diegorekin batera fanzine La Tourette sortzea oso aberasgarria izan da, esperientzia zoragarria benetan. Hari esker pertsonalki zein profesionalki hazi gara biok, gure antzera, proiektuak garapen handia izan duelarik. Fanzinea proiektu artistiko batean bihurtu da, non lankidetzaz funtsezko den eta fanzinea aparteko tresna. Ifac jaialdian garatu genuen bezalako tailerretan jarri nahi dugu arreta, jendearen memoria kolektiboa hiri artearen bidez berreskuratzeko. Aurten Artaza Romo institutuarekin lankidetzan aritzeko zortea izan dugu. Kasu honetan, ikasleekin tailer bat burutu genuen, Euskal Herriko industrializazio garaiko memoria, emakume langileak bitarteko izanik errekuperatzeko. Esperientzia zoragarria izan zen, beraz, elkarlanean sortutako mota honetako tailerrak garatzen jarraitzea asko gustatuko litzaiguke.

**AAA:** Egun, beste proiektu propioen batean murgilduta zaude?

**A:** Orain irakaskuntzan eta kudeaketa kulturean murgilduta nabil. Hiru azken urtetan Laura Díez laguntzen dut Iturfest arte festibala antolatzen. Aurtengoa 5 garren edizioa da, eta arte esparru ezberdinetako 12 artisten proposamenak eta zenbait tailer gozatzeko aukera izango dugu.

**AAA:** Ixteko, non izan dezakegu zure lanaren berri?

**A:** Iturfest eta bertan parte hartzen duten artisten inguruko informazioa Ant kolektiboaren web-gunean topatu dezakezue: <https://antespacio.com> La Tourette-n egindako lana hemen dago ikusgai: <https://fanzinelatourette.tumblr.com> Eta nire lana Tumblr honetan <https://paperetxea.tumblr.com> edo [www.anaaldamavirto.com](http://www.anaaldamavirto.com) web orrialdean ikusi daiteke.

